

Presentación Autobús de la Memoria  
Oroimenaren Autobusaren Aurkezpena

[www.autobusdelamemoria.org](http://www.autobusdelamemoria.org)  
[www.oroimenarenautobusa.org](http://www.oroimenarenautobusa.org)



- 1. Noticia de la presentación / Aurkezpenaren berria
- 2. Manifiesto del autobús / Autobusaren manifestua
- 3. Colectivos organizadores y colaboradores / Talde antolatzaile eta laguntzaileak
- 4. Actividades semana 7-13 de abril / Apirilak 7-13 bitarteko ekitaldiak

**Presentación Autobús de la Memoria  
Oroimenaren Autobusaren Aurkezpena**

[www.autobusdelamemoria.org](http://www.autobusdelamemoria.org)

[www.oroimenarenautobusa.org](http://www.oroimenarenautobusa.org)



1. Esta mañana se ha presentado en Pamplona el autobús de la Memoria, un proyecto de todas las asociaciones de Navarra que están trabajando en el denominado movimiento de recuperación de la memoria, esto es, Asociación de Familiares y Desaparecidos a raíz del golpe militar de 1936, Asociación Pueblo de las Viudas, Ahaztuak 1936-1977, Memoriaren Bideak, Txinparta, Psicólogos sin Fronteras y Hutsarte. En ese sentido queremos recalcar que es la primera vez que todas las asociaciones se unen en Navarra para una iniciativa en común, dando un carácter unitario a los homenajes que se vienen realizando desde hace años. Además, en el proyecto participan asociaciones de diferentes pueblos y está abierta a aquellas que quieran unirse.

2. Con este proyecto queremos, por un lado, difundir la memoria de aquellas personas que tras el golpe de 1936 fueron castigadas por no comulgar con el fascismo triunfante, queremos también unir los diferentes actos que ya se vienen haciendo desde años, y queremos que sirva para dar a conocer las reivindicaciones que de todas las asociaciones de cara al presente y al futuro (recogidas en el manifiesto del autobús), en cuanto, por ejemplo, la desaparición de símbolos franquistas de nuestros pueblos y ciudades, en cuanto a la señalización de los lugares de la represión, o en lo que se refiere al reconocimiento de las víctimas y el derecho de ellas y de toda la sociedad a saber la verdad de lo que ocurrió.

3. Como indica el nombre, hemos puesto en marcha un autobús que recorrerá toda la geografía, uniendo los homenajes que se vienen haciendo durante los últimos años. Así, empezará el 12 de abril en el homenaje a los fusilados en la Vuelta del Castillo; estará también, entre otros, en la inauguración del Parque de la Memoria de Sartaguda el 10 de mayo, el 25 de mayo en el homenaje de Ezkaba, y el 14 de junio en el de Vidángoz. El final del trayecto será el 21 de junio con una concentración en la plaza Conde de Rodezno, por ser uno de los símbolos principales del franquismo en Navarra, ya que además de llevar el nombre de un Ministro de Justicia de la dictadura, algo impensable en otros lugares de Europa que también sufrieron dictaduras fascistas, acoge el Monumento de los Caídos, donde el ayuntamiento tiene una sala de exposiciones llamada también Conde de Rodezno, y donde además están enterrados Mola y Sanjurjo, partícipes del golpe de estado.

4. Dentro del autobús irán 6 pantallas donde se podrá ver un pequeño audiovisual, una librería móvil a cargo de la librería La Hormiga Atómica, y un buzón para la memoria, donde se podrán depositar testimonios. Además, tanto en Pamplona como en el resto de pueblos se moverán dos exposiciones ( la organizada por artistas de Hutsarte y la titulada "Esclavitud bajo el franquismo"), y diferentes charlas y documentales. Además, se estrenará un documental, El cementerio de las botellas, de Iñaki Alforja, en torno a las exhumaciones de Ezkaba. Hay que decir que le propio proyecto será motivo de un documental que próximamente realizará Eguzki Bideoak.

5. Para terminar, contamos con un blog ([www.autobusdelamemoria.org](http://www.autobusdelamemoria.org)) para aquellas personas que quieran seguir el recorrido del autobús, y hemos puesto a la venta un billete del autobús o bono ayuda (2 euros) para todos aquellos que quieran colaborar económicamente con la iniciativa.

Iruñea-Pamplona, 7 de abril de 2008

## Presentación Autobús de la Memoria Oroimenaren Autobusaren Aurkezpena

[www.autobusdelamemoria.org](http://www.autobusdelamemoria.org)

[www.oroimenarenautobusa.org](http://www.oroimenarenautobusa.org)



1. Gaur goizean aurkeztu da Iruñean “Oroimenaren autobusa” Nafarroan memoria historikoa berreskuratzeko deituriko mugimenduan aritzen diren elkarten proiektua, Asociación de Familiares y Desaparecidos a raíz del golpe militar de 1936, Asociación Pueblo de las Viudas, Ahaztuak 1936-1977, Memoriaren Bideak, Txinparta, Psicólogos sin Fronteras eta Hutsarte elkarteek antolatutakoa. Alde horretatik azpimarratu nahi dugu mugimendu horretan aritzen diren elkarte guztiak biltzen diren lehenbiziko aldia dela, aspaldi egiten aritu diren ekimenak eta omenaldiak proiektu berean elkartuz. Elkarte horietaz aparte, Nafarroako zenbait herrietako bertze elkarteek ere parte hartzen dute (diptikoan duten zerrenda). Proiektua martxan badago ere, irekia dago nahi duen guztiak parte ahal izateko.

2. Izan ere proiektu honekin 1936ko golpearen ondorioz gizartean eskubideen aldeko aldaketak bultzatu nahi izateagatik zigortuak izan zirenen memoria zabaldu nahi dugu, erran bezala, azken urteotako egiten aritu diren horren inguruko zenbait ekimenei izaera bateratua eman nahi baitiegu. Aldi berean, orainaldiari zein etorkizunari begira elkarten aldarrikapen nagusiak ezagutzera eman nahi ditugu, sinbolo frankistak kentzeari, errepresioaren tokiak señalatzeari, biktimekiko errekonozimenduei dagozkionez edota egia ezagutzeari dagozkionez, bertzeak bertze (autobusaren manifestuan agertzen direnak).

3. Proiektuaren izenak erakusten duenez, autobus bat jarri dugun martxan, Nafarroako geografia zeharkatuko duena, eta azken urte hauetan egiten aritu diren omenaldietan egonen da: apirilaren 12an Vuelta del Castillon fusilatuei egingo zaien omenaldian hasiko da, maiatzaren 10ean Sartagudan Memoriaren Parkearen inaugurazioan egongo da, maiatzaren 25en Ezkaban egingo den omenaldian edota ekainaren 14an Bidangozen egingo den omenaldian, bertzeak bertze. Bukaera ekainaren 21ean izanen da, Conde de Rodezno plazan egingo den kontzentrazio batekin, plaza horrek frankismoaren diktaduraren Nafarroako sinbolo nagusienetakoa baita, plazak Justizia Ministroa izandakoaren izena duelakoz, Alemanian edo Italian pentsaezina litzatekeena, eta hortxe berean Monumento de los Caídos deritzona ere badagoelakoz, Conde de Rodezno izen bera ere duen udal erakusketa gela duena, eta Mola zein Sanjurjoren hilobiak gordetzen dituen.

4. Autobusaren barne 6 pantaila egonen dira audiobisual labur bat ikusi ahal izateko, liburu-denda mugikor bat, La Hormiga Atomika liburendak jarria, eta memoriarako postontzia, nahi dituenak bere testimonioak utzi ahal izateko. Horrekin batera, dokumentalak, hitzaldiak, eta erakusketak (Hutsarte taldearen artistek egindakoa eta Esklabotza frankismoan izenekoa) eramango ditugu herriz herri. Gainera “El cementerio de las botellas” izeneko dokumentala aurkeztuko da, Ezkabako gorpuak ateratzearen inguruan Iñaki Alforjak egindakoa. Autobusa bera ere dokumental berri baten gaia izanen da, proiektua bukatu eguzki Bideoak jasoko baitu.

5. Bukatzeko, autobusaren inguruko berriak jarraitu nahi dituenarentzat blog bat jarri dugu abian ([www.oroimenarenautobusa.org](http://www.oroimenarenautobusa.org)); eta proiektu honekin kolaboratu nahi duen guzientzat autobusaren billetea edo laguntza bonoa salgai jarri dugu, 2 eurotan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

**Manifiesto Autobús de la Memoria  
Oroimenaren Autobusaren Manifestua**

[www.autobusdelamemoria.org](http://www.autobusdelamemoria.org)

[www.oroimenarenautobusa.org](http://www.oroimenarenautobusa.org)



## **Un autobús contra el silencio**

Sobre las fosas comunes recién abiertas, sobre las cárceles, sobre las violaciones y los paseos de mujeres rapadas, sobre confiscaciones de tierras y trabajos forzados, el triunfante régimen franquista extendió el manto del silencio oficial para que perdurara el miedo, pero al mismo tiempo no se oyeran las voces de quienes sufrieron la guerra y la represión. Navarra no fue frente de guerra, pero ello no fue óbice para quedar excluida de la política de exterminio implantada por los sublevados. El alzamiento con la represión y terror subsiguientes creó una grave y profunda fractura social en cada uno de los pueblos de nuestra Comunidad.

Este manto de silencio fue fundamental para quienes desde el mundo militar, la iglesia, la oligarquía y la prensa local alentaron, apoyaron y se aprovecharon del alzamiento contra un gobierno democrático, desde ideologías fascistas y nacional católicas. Especialmente doloroso fue el papel de la iglesia. De todos estos sectores la sociedad democrática basada en los derechos humanos sigue esperando a día de hoy un gesto de arrepentimiento.

Pocos años después de la muerte del dictador, buena parte de la sociedad navarra perdió el miedo, y salió con picos y palas a escarbar en las cunetas, buscó información y una parte pudo recuperar los restos de sus seres queridos. Al mismo tiempo, gracias a un amplio trabajo colectivo, pueblo a pueblo se recopilaban exhaustivos datos sobre el alcance de la represión que desmentían las burdas mentiras de la propaganda franquista.

Nuevamente, las instituciones intentaron acallar esa movilización popular. Hicieron oídos sordos para que todo quedara de nuevo en silencio, como si no hubiera pasado nada, como si no hubiera tenido lugar el mayor crimen colectivo cometido en la historia de Navarra. Sin embargo, la movilización social se ha mantenido viva y ha crecido en los últimos años en su deseo de verdad, justicia y reparación. Con la aparición de una Ley de Memoria Histórica, queda todavía lejos de resolver los efectos y las consecuencias de la involución democrática y de los derechos humanos que supusieron el alzamiento del 36 y el franquismo subsiguiente, efectos que llegan hasta nuestros días.

Conscientes de ese camino por andar presentamos este autobús que pretende difundir las voces de quienes sufrieron por no comulgar con el fascismo triunfante, por intentar repartir las tierras de una manera equitativa, por crear escuelas y teatros o por defender que hombres y mujeres merecieran el mismo respeto y gozasen de los mismos derechos. O simplemente por nada, por ser una víctima más a engrosar en una estrategia del terror.

Por ello, este autobús de las voces recorrerá Navarra uniendo diferentes localidades y actos que llevan años celebrándose, y que este año tendrán un carácter más unitario, más colectivo, de manera que conozcamos mejor experiencias que a menudo son desconocidas en pueblos de otras comarcas.

## Un autobús lleno de voces y de rostros

El autobús recorrerá diversos pueblos y ciudades de Navarra llevando consigo un equipaje de imagen y palabras, de voces y rostros. Documentales, libros, fotografías, esculturas, conferencias...nos acercaran a nuestro pasado e intentarán completar los huecos de nuestra historia reciente.

## Un autobús para el presente

Se trata de propuestas ya impulsadas en otras zonas por colectivos de memoria histórica y que queremos adaptar aquí a la realidad navarra. Por ello, el autobús y los colectivos que lo impulsamos proponemos:

- 1- La ayuda colectiva a las familias que todavía no conocen el paradero de sus seres queridos. Esto implica a toda la sociedad, pero exige también un compromiso público para localizar todas las fosas comunes dispersas y asumir los gastos derivados de las exhumaciones, teniendo como norte de la actitud en el terreno la celeridad, la eficacia y la profesionalidad, así como la gestión por parte de las instituciones correspondientes de todos los trámites necesarios para que estas tres premisas se cumplan.
- 2- Eliminación en pueblos, ciudades y barrios de TODOS aquellos símbolos y topónimos que ensalcen elementos de cualquier tipo del régimen franquista, así como cualquier mención o título honorífico que aun conserve cualquiera de las personas relacionadas con dicho régimen.
- 3- Elaboración de un censo municipal y provincial de “lugares de memoria” (cárceles, campos de concentración, obras realizadas con trabajos forzados, lugares de detención e internamiento, fosas comunes...) y medidas para su preservación, conservación y señalización, elaborando un plan que haga de estos lugares espacios permanentes de condena del franquismo y de transmisión de la memoria histórica. Declaración de estos lugares como “zona protegida no urbanizable” en los PGOU y en las diferentes normativas urbanísticas municipales y provinciales.
- 4- Censo de todas las personas que sufrieron represalias económicas e incautaciones durante el franquismo y puesta en marcha de una iniciativa de denuncias de todos los procesos de incautación de bienes personales y colectivos que se dieron contra los “desafectos al Régimen” tras la victoria del franquismo.
- 5- Exigir e impulsar la rehabilitación de l@s [funcionari@s](#) y [trabajador@s](#) de las instituciones locales y provinciales afectados por los expedientes de depuración realizados en el franquismo, con la anulación del proceso por parte de la Administración o empresa correspondiente y su publicación en el órgano correspondiente.

- 6- Fomentar el tratamiento de estos temas en el mundo educativo, teniendo en cuenta la historia local y provincial y promoviendo la participación de testigos que trasladen sus vivencias a los estudiantes.
- 7- Puesta en marcha de forma urgente de medidas de búsqueda, recuperación, preservación, organización y vertebración de todos aquellos archivos que contengan documentación referente a las víctimas de la represión franquista y pongan dicha información de forma abierta y accesible al servicio de la investigación, de la sociedad y de forma principal al servicio de [l@s propi@s afectad@s](mailto:l@spropisafectad@s).
- 8- Exigir e impulsar todas las iniciativas que promuevan la anulación de todos los sumarios y expedientes incoados por el régimen franquista durante toda su existencia poniendo en marcha todo tipo de iniciativas y peticiones ante las instancias correspondientes que lleven a cumplir dicho objetivo.
- 9- Exigir e impulsar todas las iniciativas que promuevan la consideración de los crímenes del franquismo como Crímenes de Lesa Humanidad y por tanto imprescriptible.
- 10- Creemos que la memoria de la guerra y la represión debe ir ligada a una denuncia de la guerra y la defensa de los Derechos Humanos en nuestra tierra.

## **No pierdas el autobús**

La memoria de la guerra y de la represión fascista de este periodo de nuestra historia reciente es un acto de justicia y reconocimiento hacia sus víctimas y un elemento imprescindible para el restablecimiento de la reconciliación social. Pero también debe ser, una herramienta para un mañana más justo y más libre. En ese camino, el autobús de la memoria será buena compañía, y por ello hacemos un llamamiento público a personas, colectivos e instituciones a sumarse a esta iniciativa participando en los diversos actos y subiendo también a este autobús.

## Manifiesto Autobús de la Memoria Oroimenaren Autobusaren Manifestua

[www.autobusdelamemoria.org](http://www.autobusdelamemoria.org)

[www.oroimenarenautobusa.org](http://www.oroimenarenautobusa.org)



### Isiltasunaren kontrako autobusa

Ireki berri diren hilobi komunak, kartzelaratzek, emakume bortxatuak eta indarrez kaskamotz utzita paseatzera ateraraziak, lur-konfiskazioak eta lan bortxatuak..., horiek guztiak estali zituen isiltasun ofizialaren bidez Francoren erregimen garaileak, beldurra luzatu, eta, aldi berean, gerra eta errepresioa sufritu zutenen hotsak isilarazteko asmoz. Nafarroa ez zen gerra-frontea izan, baina, halere, ez zen altxamendu nazionalaren jarraitzaileek ezarritako sarraskitze-politikatik kanpo geratu. Altxamenduak eta haren ondorengo errepresioak eta izuak apurketa larria eta sakona sortu zuten gure komunitateko herri guzti-guztietako gizartean.

Hori guztia isilaraztea funtsezkoa izan zen militar, eliza, oligarkia eta tokiko prentsarentzat, alegia, ideologia faxistei eta nazional-katolikoek eutsirik, gobernu demokratiko baten kontrako altxamendua adoretu, lagundu eta baliatu zutenentzat. Bereziki mingarria izan zen elizaren eginkizuna. Gaur egun oraindik ere giza eskubideak oinarri dituen gizarte demokratikoa zain dago sektore horiek guztiek damu-adierazpenen bat noiz egingo.

Diktadorea hil eta handik gutxira, Nafarroako gizartearen zati handi batek beldurra galdu zuen, eta bide-ertzetara atera zen informazio bila, pikatxoak eta palak eskuan, lurra haztakatzera; hala, batzuek jende maitatuaren gorpuzkiak errekuiperatzea izan zuten. Era berean, herriz herri egin zuten auzolan handiari esker, datu zehatzak jaso zituzten, eta horiei esker jakin zuten errepresioa noraino heldu zen eta propaganda frankistaren gezur latzak gezurtatu zituzten.

Erakundeak berriz saiatu ziren herri-mobilizazio hura isilarazten. Ez entzunarena egin zuten, berriro ere dena isilpean gera zedin, deus ere gertatu izan ez balitz bezala, Nafarroako historian izandako krimen kolektiborik handiena gertatu izan ez balitz bezala. Hala eta guztiz ere, gizarte-mobilizazioak bizirik iraun du, eta azken urteotan, Oroimen Historikoaren Legearen sorrerarekin, areagotu egin da, egia, justizia eta ordaina jasotzeko desioan. Nolanahi ere, lege horri askotxo falta zaio 36ko altxamenduak eta ondorengo frankismoak demokraziaren eta giza eskubideen aldetik ekarri zuen inboluzioaren ondorioak —gaur arte heltzen direnak—konpontzeko.

Ibiltzeke dagoen bidez jabetzen garelarik, autobus hau aurkezten dizuegu, frankismo irabazlearekin bat ez etortzeagatik sufritu zutenen hotsak zabaltzeko, lurra zuzen banatzen saiatzeagatik, eskolak eta antzokiak sortzeagatik, edo gizonen eta emakumeen errespetu eta eskubide berberak izan zitzaten defendatzeagatik, edo, besterik gabe, edozergatik, izuaren estrategiaren baitan biktima bat gehiago izate hutsagatik.

Horregatik, hotsen autobus hau Nafarroan zehar ibiliko da, zenbait herri eta urte askoan egin diren ekintzak lotuko ditu; horrela, aurten ekintza horiek bateratuagoak, kolektiboagoak,

izango dira, eta aukera izango dugu beste eskualde batzuetako ekimenen berri izateko, maiz ezezagunagoak ditugu-eta.

### **Ahotsez eta aurpegiz beteriko autobusa**

Autobusa Nafarroako zenbait herritan eta hiritan ibiliko da, irudiak eta hitzak, hotsak eta musuak eramanez. Dokumentalak, liburuak, argazkiak, eskulturak, hitzaldiak,...horiek guztiak baliatuko ditugu gure iragana ezagutzeko eta iragan berriko gure historiaren hutsuneak betetzen saiatzeko.

### **Oraina lantzeko autobusa**

Oroimen historikoa lantzen duten taldeek bultzatu dituzten proposamenak dira, orain Nafarroako errealtatera ekarri nahi ditugunak. Hona ekimen honen bultzatzaileok egiten ditugun proposamenak:

- 1- Oraindik ere euren senideak non dauden ez dakiten familiei laguntza kolektiboa ematea. Hori gizarte osoari dagokio, baina, era berean, konpromiso publikoa behar da sakabanatutako hilobi komun guztiak non dauden aurkitzeko, eta gorpuzkiak hobitik ateratzeko gastuak bere gain hartzeko. Lan horiek hiru premisa ardatz hartuta egin behar dira, alegia: azkartasuna, eraginkortasuna eta profesionaltasuna, eta dagozkion erakundeek hiru premisok betetzeko beharrezko diren tramite guztiak egin beharko dituzte.
- 2- Erregimen frankistaren edozein motatako elementuak goraiatzeko dituzten ikur eta toponimo GUZTIAK gure herri, hiri eta auzoetatik deuseztatzea, baita erregimen harekin lotutako edozein pertsonak oraindik ere duen ohorezko aipamen edo titulu oro ere.
- 3- “Oroimen-lekuak” (kartzelak, kontzentrazio-esparruak, lan bortxatuen bidez egindako obrak, jendea atxilotzeko eta barneratzeko lekuak, hilobi komunak...) jasotzeko udal eta probintzia errolda egitea eta beroiek babesteko, gordetzeko eta seinalatzekoak egitea, leku horiek frankismoa gaitzesteko eta oroimen historikoa zabaltzeko betiko esparru bilaka daitezkeen plan bat eginez. Leku horiek “lurzoru urbanizaezin babestutzat” jotzea, hiri antolamenduetarako plan nagusietan eta udal eta probintzia arau desberdinetan.
- 4- Frankismoan errepresalia ekonomikoak eta konfiskazioak nozitu zituzten pertsona guztien errolda egitea, eta frankismoaren garaipenaren ondoren “erregimenaren aurkakoei” ondasun pertsonalak eta kolektiboak konfiskatzeko izandako prozesu guztiak salatzeke ekimen bat martxan jartzea.
- 5- Frankismoan egindako garbiketa-espedienteek kaltetutako udal eta probintziako erakundeetako funtzionario eta langile guztien birgaitzea exijitzea eta sustatzea, dagokion administrazioak edo enpresak prozesua baliogabe dezaten eta baliogabetze hori dagokion organoan argitara dezan.
- 6- Hezkuntza-arloan gai horiek, udal eta probintziako historia kontuan hartuta, jorra dezaten bultzatzea, lekukoek euren bizipenak ikasleei jakinaraz diezazkioten sustatuz.
- 7- Errepresio frankistaren biktimei buruzko artxibo guztiak bilatzeko, errekupeatzeko, babesteko, antolatzeke eta hezurramitzeko neurriak premiaz hartzea, informazio hori ikerkuntzaren, gizartearen eta batez ere kaltetutakoen beraien eskura jarritz, era zabalean jarri ere.
- 8- Erregimen frankistak bere iraunaldi osoan hasitako sumario eta espediente guztiak baliogabetzeko ekimen guztiak exijitzea eta bultzatzea, helburu hori betetzera daramaten instantzia guztien aurrean mota guztietako ekimenak eta eskaerak abian jarritz.



- 9- Frankismoaren krimenak Gizateriaren aurkako Krimentzat, alegia, preskribatzen ez diren krimentzat, hartzeko ekimen guztiak exijitzea eta bultzatzea
- 10- Gure ustez, gerraren eta errepresioaren oroimena gerraren kontrako salaketarekin eta giza eskubideen aldeko defentsarekin batera egin behar da.

### **Ez galdu autobusean sartzeko aukera!**

Orain dela gutxi gurean izandako gerraren eta errepresio frankismoaren oroimena biktimekiko justizia- eta aitormen-ekimena da, ezinbestekoa gizarte-adiskidetzea lortzeko. Baina, era berean, etorkizuna justuagoa eta askeagoa lortzeko baliabidea behar du. Bide horretan, oroimenaren autobusa bidaia-lagun ona izango dugu, eta, horregatik, dei bat egiten diegu kolektiboek, erakundeei eta lagun guztiei ekimen honekin bat egin dezaten, ekimenetan parte hartuz eta autobus honetan sartzeko aukera ez galduz.

Autobús de la Memoria  
Oroimenaren Autobusa  
[www.autobusdelamemoria.org](http://www.autobusdelamemoria.org)  
[www.oroimenarenautobusa.org](http://www.oroimenarenautobusa.org)



Organizan / Antolatzaileak:

- Asociación de Familiares de Fusilados y Desaparecidos a raíz del golpe militar de 1936
- Asociación Pueblo de las Viudas
  - Ahaztuak 1936-1977
  - Memoriaren Bideak
  - Txinparta
- Psicólogos sin Fronteras
  - Hutsarte

Colaboran / Laguntzaileak:

- Sanfermines 1978 Gogoan
  - Eguzki Bideoak
- La Hormiga Atómica liburuak
  - Baztandarren Biltzarra
- Instituto Gerónimo de Uztariz
  - Editorial Pamiela
- Plataforma por la retirada de símbolos franquistas en la Txantrea
  - Fundación Traperos de Emaús
  - Colectivo Gurugu Taldea
    - Whipala
    - Visualiza.info
  - Familiares de fusilados de Aoiz
- Familiares de fusilados - Ayuntamiento de Aibar

**Autobús de la Memoria / Oroimenaren Autobusa  
Ekitaldiak (Apirilak 7-13 Abril) actividades**

[www.autobusdelamemoria.org](http://www.autobusdelamemoria.org)

[www.oroimenarenautobusa.org](http://www.oroimenarenautobusa.org)



- **Homenaje a los fusilados de Navarra:**
  - o Lugar: Vuelta del Castillo (Pamplona)
  - o Fecha y hora: 12 de abril, 12:30 del mediodía
  - o Organizan: *Asociación de Familiares Asociación Fusilados y Desaparecidos a raíz del golpe militar de 1936 y Asociación Pueblo de las Viudas*
  
- **Recorrido por las calles con nombres franquistas:**
  - o Lugar: Plaza de la Txantrea (Pamplona)
  - o Fecha y Hora: 13 abril, 12 del mediodía
  - o Organiza: Plataforma por la retirada de símbolos franquistas en la Txantrea
  
- **Exposición Artistas Hutsarte:**
  - o Lugar: Calle Nueva, frente a hotel Maisonave (Pamplona)
  - o Fecha y Hora: Lunes a sábado de 6.30 a 9, y domingos de 12 a 2, del 7 al 18 de abril
  - o Organiza: Hutsarte
  
- **Exposición “Esclavitud bajo el franquismo. Obras y fortificaciones en el Pirineo occidental”:**
  - o Lugar: Casa de Cultura (Aoiz)
  - o Fecha: del 2 al 15 de abril
  - o Organiza: Memoriaren Bideak, Instituto Gerónimo de Uztariz, Ayuntamiento de Aoiz.
  
- **Conferencia “1936.Represión y Guerra Civil”:**
  - o Lugar: Sala Municipal de Calderería, trasera Escuela de Idiomas (Pamplona)
  - o Fecha y Hora: 10 de abril, a las 19:30

**Autobús de la Memoria / Oroimenaren Autobusa  
Ekitaldiak (Apirilak 7-13 Abril) actividades**

[www.autobusdelamemoria.org](http://www.autobusdelamemoria.org)

[www.oroimenarenautobusa.org](http://www.oroimenarenautobusa.org)



- **Omenaldia Nafarroako afusilatuei:**
  - o Tokia: Gaztelu gibelean (Iruñea)
  - o Eguna eta ordua: apirilak 12, eguerdiko 12:30 etan
  - o Antolatzaileak: *Asociación de Familiares Asociación Fusilados y Desaparecidos a raíz del golpe militar de 1936* y *Asociación Pueblo de las Viudas*
  
- **Ibilaldia izen frankista duten kaleetatik:**
  - o Tokia: Txantrea plaza (Iruñea)
  - o Eguna eta ordua: apirilak 13, eguerdiko 12etan
  - o Antolatzailea: Plataforma por la retirada de símbolos franquistas en la Txantrea
  
- **Exposición Artistas Hutsarte:**
  - o Tokia: Kale berria, Maisonave hotelaren aurrean (Iruñea)
  - o Eguna eta ordua: Astelehenetatik larunbateetara (8:30etatik 21:00 arte) eta igandeak (12 etatik 14etara), apirilak 7 eta 18 bitartean
  - o Antolatzailea: Hutsarte
  
- **Erakusketa “Esklabotza frankismoan: errepideak eta fortifikazioak mendebaldeko Pirinioan”:**
  - o Tokia: Kultur Etxea (Agoitz)
  - o Eguna eta ordua: apirilak 2 eta 15 bitarte
  - o Antolatzaileak: Memoriaren Bideak, Gerónimo de Uztariz Institutua, Agoitzeko Udala.
  
- **Hitzaldia “1936.Represión y Guerra Civil”:**
  - o Tokia: Calderería kaleko Udal aretoa (Iruñea)
  - o Eguna eta ordua: apirilak 10, 19:30etan